



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Lagun agurgarriok:



Gorka Urtaran
Agirre jn. Vitoria-
Gasteizko alkatea

Vitoria-Gasteizko alkate bezala eta Hezkuntza eta Kultura zinegotzi gisa eskerrak eman nahi dizkizuegu gure hiriarengan jarritako konfiantzagatik aldi honetan Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarea (HHES) koordinatzeko.

Ilusioz eta erantzukizunez heltzen diogu lan-erronka horri, gure aurretik aritu diren hirien jardun onari txanda hartuz. Izan ere, guztiek lagundu izan dute hezkuntzarekin engaiaturik diren hirien sare indartsu bat sortzen. Tokiko gobernuok uste dugu Hiri Hezitzaileen garapena hezkuntza formalaz harago heldu behar dela, eta beraz, modu zuzenean eragiten eta engaiatzen gaitu, zentzu zabalean hartuta. Berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren aldeko tresna bat da, inolako zalantzarik gabe, eta, ildo horretan, tokiko gobernuen agenda politikoan egongo den helburu estrategiko bat izan behar du.



Estibaliz Canto
Llorente and.
Hezkuntza eta
Kultura zinegotzia

Orain, Hiri Koordinatzaile gisa, gure erronka da lan-prozesu hobe ezin bat bermatzea, HHES gehiago indartzen jarraitzen laguntzeko eta Sarearen eta atxikitako hirien esparruan hautemandako behar berriei erantzuna emate aldera.

Ez ditugu garai errazak bizi, COVID-19ak sortutako gorabeherengatik, eta ezezagunak zaizkigun agertoki batzuei egin beharko diegu aurre. Baina hori ez da eragozpen izango orain arte bezala lanean jarraitzeko. Hala, jakinarazi nahi dizuegu HHESren Jarraipen Batzordeak, Sevillan 2020ko martxoaren 11n egindako bileran, jarraian zehazten diren **gaikako sareak abian jartzea** onartu zuela.

Sare horiek bertan azaltzen diren hiriek koordinatuko dituzte dagokigun aldi honetan. Egungo inguruabarrek gaikako sareak garatzeko ohiko denbora-eremuan aldaketa txikiak egiteko beharra eragingo balute, behar besteko aurrerapenez jakinaraziko genizueke.

Gaikako sareak:

1. "Elkarlaneko lan-ereduak: Hiri Hezitzaile baten erre-akzioa". Hiri koordinatzailea: Avilés.
2. "Garapen iraunkorrerako helburuak haurtzaroaren inplikazioarekin". II. fasea. Hiri koordinatzailea: Lleida.
3. "Berdintasunaren eta genero-indarkeriatik libre diren hiriak". Hiri koordinatzailea: Sevilla.
4. "Hiri Inklusiboa, Hiri Hezitzailea". Hiri koordinatzailea: Vitoria-Gasteiz.

Izena ematera eta modu bizian parte hartzera animatzen zaituztegu. Horretarako, dagokion inprimakia bete eta online bidali behar duzue **2020ko apirilaren 30a baino lehen, egun horretan barne**. Sare bakoitzean eskura dauden plazak mugatuak direnez, eskertuko genizueke sare batean baino gehiagotan parte hartu nahi duzuen hiriok horiek lehentasunezko hurrenkeran markatuko bazenituzte. Lana erraztu egingo dio horrek Jarraipen Batzordeari, alegia plaza berresteaz arduratuko den taldeari.

Vitoria-Gasteizko Udalak Hezkuntza Udal Zerbitzu bat du eta bera arduratuko da aldi honetan HHES egoki koordinatzeko beharrezko izango diren zeregin tekniko guztiak burutzeaz. Beraz, Zerbitzu horrekin harremanetan jartzera gonbidatzen zaituztegu gaikako sareetan izena ematearen edo HHESri lotutako beste edozein konturen inguruan edozein argibiderako, honako helbide elektronikoa honen bidez: **recevg@vitoria-gasteiz.org**

Eskaini diguzuen konfiantzagatik berriro eskerrak emanez, gure babes zintzoena bidaltzen dizuegu une zail hauetan, eta baita COVID-19aren ondorioei aurre egiteko behar den indarra ere.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 14an



Gorka Urtaran Agirre jauna
Vitoria-Gasteizko alkatea



Estíbaliz Canto Llorente andrea
Hezkuntza eta Kultura zinegotzia